



EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA
ETA INGURUMEN SAILA

Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

INGURUMENA BABESTEKO LAGUNTZAK

– 2023ko deialdia–

PROIEKTUAREN DATUEN INPRIMAKIA - PROZEDURA ARRUNTA

1. Enpresa eskatzaileari buruzko informazioa

1.1. Entitate eskatzailearen datuak

Izena/Sozietate-izena:

Identifikazio-dokumentua (NAN/IFK):

Zenbakia:

1.2. Inbertsioa egingo den ZENTROaren datuak

Izendapena

IIZ

Helbidea

Zk.

Pisua

Letra

PK

Udalerria

Lurraldea

1.3. Jarduera nagusiari buruzko deskribapen laburra

1.4. Dirulaguntzaren harremanetarako pertsona

Izena

Lehenengo abizena

Bigarren abizena

Kargua

Helbide elektronikoa

Telefonoa

1.5. Enpresa-tipologia

Enpresa, zentro honetarako, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari (IPPC) buruzko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren eta 815/2013 Errege Dekretuaren mende dago: Bai Ez

Ingurumen-baimen integratua dauka Bai Ez Data:

1.6. Jardueraren kokapena, proiektu-tipologiaren arabera

Adierazi jardueraren kokapena proiektu-motaren arabera:

Ura, Zaratak, Lurzoru kutsatuak eta Usainak hobetzeko inbertsioetan¹

Etxebizitzak 100 m-tik gorako distantzian dituzten industria-eremuetan kokatutako jarduerak.

Etxebizitzak 100 m-tik beherako distantzian dituzten industria-eremuetan kokatutako jarduerak.

Bizitegi-hirigunean kokatutako jarduerak..

Jarduerak bizitegi-hirigunean kokatuta daude eta/edo 100 m-tik beherako distantzian dauden jarduerak ikastetxeak, zaharren egoitzak eta antzekoak dira.

Apirilaren 2ko 79/409/EEE Zuzentarauaren eta/edo maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren eraginpeko eremuak, edo naturagune babestuak, natura kontserbatzeari eta naturagune horiekiko eragina justifikatzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera. Zehaztu

Bestelakoak. Zehaztu

(1) Aurreko aukeretako bat bera ere markatu ezean, kokapena lehenengo aukerarekin bat datorrela ulertuko da.

Airea hobetzeko inbertsioetan

Bizitoki-eremuak 1 km-tik gorako distantziara dituzten industria-eremuetan kokatutako jarduerak.

Bizitoki-eremuak 250 m eta 1 km bitarteko distantziara dituzten industria-eremuetan kokatutako jarduerak.

Bizitoki-eremuak 100-250 m bitarteko distantziara dituzten eremuetan kokatutako jarduerak.

Bizitoki-eremuak 100 m baino gutxiagoko distantziara dituzten eremuetan kokatutako jarduerak, eta 79/409/EEE eta 92/43/EEE Zuzentarauek eta 1/2014 L.D.ak eragindako eremuetan kokatutako jarduerak.

Eremu sentikorretan kokatutako jarduerak, hala nola airearen kalitatearen arazoak dituzten eremuetan, ikastetxeetatik eta bizitokietatik gertu eta 79/409/EEE eta 92/43/EEE Zuzentarauek eta 1/2014 L.D.ak eragindako eremuetan.

Hondakinak hobetzeko inbertsioetan

Balorizazioa helburu duten hondakin ez-arriskutsuak murrizteko inbertsioak

Balorizazioa helburu duten hondakin arriskutsuak murrizteko inbertsioak

Zabortegian uztea helburu duten hondakin ez-arriskutsuak murrizteko inbertsioak

Zabortegian uztea helburu duten hondakin arriskutsuak murrizteko inbertsioak

2. Prozedura arrunterako inbertsio-proiektuari buruzko informazioa

2.1 Proiektuaren izenburua

2.2. Proiektua zein prozeduratan aurkezten den

Prozedura arrunta, zehazki, hauetarako:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

a.1.– Usainak jariatzea murrizteko inbertsioak.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorren eta konposatu organiko iraunkorren multzoaren barruan kezka sortzen ari diren kutsatzaileen emisioak arazteko edo tratatzeko sistemetan egindako inbertsioak.

a.3.– Galdategiko emisio zehaztugabeak minimizatzea, habeartea itxita eta emisioak konfinatuta eta bilduta.

a.4.– Inbertsioak in situ sentsoreetan oinarritutako partikula-emisio barrietaratuak kontrolatzeko sistemetan eta segimendu jarraitua eta berehalako jarduerak egiteko teknologia berrietan.

a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, Euskadiko hondakinen gaineko 2030eko prebentzio eta kudeaketa-planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko.

a.6.– Hondakinen eta funtsezko beste metal batzuen Europako zerrendako material kritikoak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko ekoizpen-prozesua egokitzeko inbertsioak edo neurriak.

a.7.– Egiturazko zementu zuntza kentzera bideratutako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak, hau da, Udalak ez badu 2023 ekitaldirako planifikatu egiturazko zementu zuntza kentzea.

a.8.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago. Inbertsioak enpresa hondakin-sortzaileek beraiek eta hondakinen kudeatzaileek egin ahal izango dituzte. Inbertsioak enpresa hondakin-sortzaileek beraiek eta hondakinen kudeatzaileek egin ahal izango dituzte.

a.9. – Hondakinak prebenitzeko eta minimizatzeke eta hondakinak berrerabiltzeko prestatzeko eragiketak (PXR) ezartzeko edo egokitzeko inbertsioak, besteak beste, erabiltzen ez diren ibilgailuen, TEEHen eta konpositeen produktuen (ekipoak, osagaiak eta piezak) ondorengo konponketa, berregokitzea eta birmanufaktura errazteko inbertsioak.

a.10.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak.

a.11.– Birziklatu ezin diren kutzak eta/edo ontziak edo erabilera bakarreko ontziak ontzi berrerabilgarriekin ordeztzeko inbertsioak (adibidez, arrainontzietarako poliestireno hedatuaren ordez kutxa berrerabilgarriak jartzea).

a.12.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko.

a.13.– Hondeatutako lurak biltegitratzeko eta ondoren berrerabiltzeko edo balioztatzeko erabiliko diren eta egokitzapen horretarako ingurumen-organoak helarazitako irizpideak betetzen dituzten kokalekuak egokitzeko inbertsioak edo neurriak.

a.14.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak.

c.1.– Zaborteziak gain beste helmugarik ez duten eta moldekatze kimikoko hondarrak eta/edo altzairu berezi eta herdoilgaitzen zepak eta/edo burdinazkoa ez den galdategietako zepak dituzten hormigoien, hormigoizko prefabrikatuen, asfaltoen eta morteroen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoa aztertzea lanak. Azterketek zahartze-probak egingo dituzte 2 urteren buruan, eta jasotako frogak <https://www.ihobe.eus> helbidean eskura dagoen protokoloan bilduko dituzte.

c.2.– Berotegi-efektuko gasen edo euri azidoko gasen emisioak ahalik eta gehien murriztera bideratutako azterketak, gasok tenperatura baxuko kondentsazio bidez tratatuta, eta tratamendu biologikoa erabilita.

c.3.– Kutsatzaile berriei edo iraunkorrei (PFO, PFOA, PBDE, HBCD, TBBPA, SCCP, ftalatoak, etab.) buruzko azterlanak hondakinetan eta lurzoruetan, hobeto ulertzeko zer-nola hedatzen diren ingurumenean eta hondakin-fluxuetan, eta ingurumenari buruzko araubidean txertatzeko irizpideak ezartzeko; bai eta COPen estatu mailako planeko jarduketa-lerroak garatzen dituzten azterlanak ere hondakinetan eta lurzoruetan.

c.4.– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin berriei eta arriskutsuei buruzko azterlanak.

c.5.– Eraikingintza- eta eraikuntza-obren proiektuetan soluzio industrializatuak sartzeko azterlanak, arreta berezia jarritz bigarren mailako eta bioinarriko materialak dituzten obretan. Proposamena Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza industrializatu jasangarriaren gidan jasotako erabakiak hartzeko kalkulu-tresna aplikatuz abalatu beharko da.

c.6.– Igeltsuzko materialen eta kontsumo aurreko eta/edo ondorengo material isolatzaileen hondakin balorizagarrien alderantzizko logistikako sistematiken bideragarritasun-azterlanak, guztiz bereziak, produkzio-ziklo bateragarrietan berriz sartzeari ahalbidetzen dutenak.

c.7.– Usain jarioak murrizteko azterlan olfatometriko borondatezkoak, betiere baldintza hauen pean egitekoak:

- Sorburu konfinatuak eta zehaztugabeak identifikatu, eta haien usain jarioak karakterizatu egin beharko dira.
- Laginketa, usainaren kontzentrazioa, hedatzeko abiadura eta usain jarioaren zehaztapena arau honen arabera egingo da: UNE-EN 13725:2022 «Sorburu egonkorren jarioak. Usainaren kontzentrazioa olfatometria dinamikoaren bitartez zehaztea». UNE-EN 13725 arauaren arabera ziurtagiria duten erakundeek zehaztuko dituzte instalazioko usain jarioak.
- Usain-dispersioaren ereduaren arabera azterlan olfatometrikoa egin beharko da.

c.8.– Bigarren mailako materialen ingurumen-kalitatea egokitzeko eta egiaztatzeazko azterlanak.

c.9.– Edariak ontziratzen dituzten enpresentzako azterlanak, erabilera bakarreko ontzietan oinarritutako eredu batetik ontzi berrerabilgarrietan oinarritutako eredu batera igarotzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarria den aztertzea, edota sistemaren ingeniariak diseinatzea, dela oinarritzeko dela xehetasunezkoa.

c.10.– Plastikozko ontzien birziklagarritasuna hobetzeko azterlanak, ontzien zuzentzarautik eratorritako arau bateratuek ezartzen dutenaren arabera: UNE-EN 13427: arauen erabilera; 13428: prebentzioa; 13429: berrerabilpena; 13430: birziklapena; 13431: balorizazio energetikoa; 13432: biodegradazioa.

c.11.– ErP ekodiseinuko zuzentzarauaren esparruan Europako Batzordearen 45552-9 zirkulartasuneko CEN mandatutik eratorritako arauak eta estandarrak aplikatzera bideratutako bideragarritasun-azterlanak.

c.12.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako proiektuen aurretiazko bideragarritasun-azterlanak, Euskadiko hondakinen gaineko 2030eko prebentzio eta kudeaketa-planeari finkatutako helburuak lortu ahal izateko.

c.13.– Euskal Autonomia Erkidegoko instalazio industrialetan eta nekazaritza- eta industria-instalazioetan sortutako biohondakinak kudeatzeko autokonpostaje-instalazioen bideragarritasun-azterlanak.

c.14.– Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planean lehentasunezko zatik jo diren beste ingurumen-azterlan batzuk.

c.15.– Lurzorua kutsatu dezaketen jarduketak egin diren jardunik gabeko lurzoruen azterketak, lurzoruen titularrak ez bada kutsaduraren erantzulea eta kutsatzailea izan daitekeen jardueraren titularrak egin ez badu azterketarik batere.

c.16.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten ingurumen-inbertsioak egin aurreko beste bideragarritasun-azterlan batzuk.

c.17. – Produktu jakin batzuk fabrikatzeko erabiltzen diren lehengai plastikoak ezaugarriak arautzen dituzten arau teknikoak betetzen direla egiaztatzeko inbertsioak, azpiproduktu gisa sortu edo tratatutako hondakin plastikoak deklaratzeko edo hondakin izateari uzteko.

d) Hirugarrenek sortutako hondakin birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikoak identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatadun plastikoak.

d.2.– Bizitzaren amaieran dauden ibilgailuetako hondakinak birziklatzera eta balorizatzen bideratutako inbertsioak, bai eta produktuak, osagaiak eta pieza konpondu, berregokitu eta birmanufakturatzen bideratutakoak ere, bereziki, tresna elektriko-elektronikoen hondakinenak (TEEH), edo produktuak (serie handikoak) konposite birziklatuetan oinarrituta fabrikatzera bideratutakoak.

d.3.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan inbertsioak, deskutsatzea hobetzeko, osagaiak ahal beste berrerabiltzeko eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatu eta balorizatzen.

d.4.– Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak nahastea galarazteko eta hondakin horiek bereizteko, ondoren frakzioak balorizatu ahal izateko, gailuak, makinak eta sistemak erosteko inbertsioak.

d.5.– Plastiko-hondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitatzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, erratz-makinetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan.

d.6. – Osagaien automobilgintzako tailerretan konponketa aurreratua egiteko beharrezko ekipoak eta aktiboak (Ni-MH bateria hibridoak edo antzekoak mantentzeko eta berreskuratzeko diagnostiko-ekipoak, plastikozko pieza espezifikotarako edo errekontza-ibilgailua elektriko bihurtzeko euste-lanetarako 3D inprimagailuak, ECUak birprogramatzeko ekipoak (PC barne) eta kanpoko bateria-sistema (Pass-thru), injektore piezoelektrikoak eta EGR balbulak diagnostikatzeko ekipoak, pieza plastikoak eta aluminiozkoak konpontzeko ekipoak).

d.7.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.

Oharra: Inprimaki hau prozedura arrunterako da soilik. Prozedura sinplifikaturako, inprimaki espezifikoa erabili. Proiektu bakoitza bi prozeduretako batean bakarrik aurkeztu ahal izango da.

2.3.- Proiektuaren deskribapen laburra

2.4.- Proiektuaren mugarren xehetasuna

OHAR GARRANTZITSUA:

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 5. Artikuluak ezartzen duen bezala:

“1. – Ez dira diruz lagunduko eskabidea aurkeztu aurretik hasitako inbertsioei dagozkien proiektuak.

2.- **Diruz lagundutako inbertsioak betearazteko epea diruz lagundutako proiektuan zehaztutakoa izango da, eta gehienez ere bi urte eta sei hilekoa izango da urteko deialdia argitaratzen denetik”.**

Apartatu honetan zehazten den amaiera-data epeak luzatzeko eskaera egin gabe ez betetzeak aipatutako Dekretuaren 22. artikuluan araututakoak ez betetzea ekar dezake.

Fasea/Mugarria	Deskribapena	Hasiera (eguna/hilabetea/urtea)	Amaiera (eguna/hilabetea/urtea)	Iraupena (hilabete- kop.)
1				
2				
3				
4				
GUZTIRA (proiektu osoa):				

2.5.- Hedapenerako prestasuna.

Enpresa prest dago proiektu honetan erabiltzen diren praktikak edo teknologiak zabaltzeko eta transmititzeko.

Bai

Ez

Baietz erantzunez gero, inbertsioa egin ondoren, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak hala erabakitzen badu haren interes orokorraren arabera, ulertzen da enpresak baimena ematen duela inbertsio horri lotutako hobekuntza ekonomikoaren eta ingurumen-hobekuntzaren emaitzak argitaratzeko.

2.6.- Proiektu bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Legezko ordezkariak inbertsio-proiektuari buruzko dokumentazio espezifiko hau aurkezten du:

- a) Memoria teknikoa, I. eranskineko ereduaren arabera.
- b) Ingurumenaren hobekuntza kualitatiboa eta kuantitatiboa, II., III., IV., V., VI., edo VII. eranskineko ereduaren arabera (proiektuaren ingurumen-arloaren arabera).
- c) Proiektuak EAEko ingurumen-helburu estrategikoei egiten dien ekarpena, VIII. eranskineko ereduaren arabera.
- d) Proiektuaren izaera ekoberritzailea eta transferigarritasun-maila, IX. eranskineko ereduaren arabera.

I. eranskina

Prozedura arrunterako proiektuaren memoria teknikoa

a) Landu beharreko proiektuaren eta lortu nahi den ingurumen-hobekuntzaren deskribapena:

1) Enpresaren ingurumen-egoerari buruzko hasierako azterketa/diagnostikoa, bai eta proiektu honen justifikazioa ere.

2) Proiektuaren definizioa:

- Helburu nagusia.
- Proposatutako inbertsioa EAeko ingurumen-helburu estrategikoak lortzera bideratzen delako justifikazioa. VIII. eranskineko ereduaren arabera.
- Proiektu hau ekoberritzailea izatearen eta bere transferigarritasun-mailaren deskribapena eta justifikazioa. IX. eranskineko ereduaren arabera.
- Inbertsioaren aurretiko egoeraren eta ondorengo egoeraren deskribapena (aldaketak instalazioetan, makinetan, etab.). Adierazi inbertsioak lehendik dagoen instalazio bat ordeztzen duen edo zabaltze bat edo instalazio berri bat den.
- Ingurumenaren hobekuntza kualitatiboa eta kuantitatiboa, aurreikusitako hasierako eta amaierako egoera argi eta garbi zehaztuz. Hobekuntza ezarriko den arloaren/arloen arabera, bete kasuan kasuko eranskina/k:

Ura, II. eranskineko ereduaren arabera.

Airea, III. eranskineko ereduaren arabera.

Hondakinak, IV. eranskineko ereduaren arabera.

Zarata, V. eranskineko ereduaren arabera

Lurzoruak, VI. eranskineko ereduaren arabera.

Usainak, VII. eranskineko ereduaren arabera.

3) Aparatu eta ekipamenduen deskribapen teknikoa eta zehaztapan funtzionalak: funtzioen deskribapena, aplikazio zehatzak eta justifikazioa, fluxu-diagrama.

II. eranskina
Aurkeztutako proiektuak bete beharreko helburuen kuantifikazioa- Ura

Eranskin honetan zehaztu beharko da aplikazio-eremutzat Ura duen aurreikusitako inbertsioan ebaluatu beharreko kutsatzaileen zerrenda.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Kutsatzailea	Hasierako emaria (m ³ /urte)	Amaierako emaria (m ³ /urte)	Hasierako kontzentrazioa	Amaierako kontzentrazioa	Isurketa-mugak (*)	Unitateak	Organoa(**)	Murrizketa absolutua (t)

(*) Adierazi ibilgura, kolektorera edo itsasora isurtzeko legeak ezarritako mugak, edo jarduera-lizentziaren neurri zuzentzaileetan, ingurumen-baimen integratuan eta abarretan ezarritakoak.

(**) Adierazi zein organok ezartzen duen isurketa-muga.

Bete beharreko helburuak ur-kontsumoa murrizteari eta/edo solido esekien isuria murrizteari buruzkoak badira, proiektuak EAEko ingurumen-helburu estrategikoei egiten dien ekarpena hartu beharko da kontuan, VIII. eranskineko ereduaren arabera. VIII. eranskinean sartu beharreko neurketak koherentea izan behar du aurreko taulan jasotako datuekin; beraz:

- Ur-kontsumoa murriztea (m³/urte) = hasierako emaria - amaierako emaria, m³/urte-tan.

- Solido esekien isuriaren murrizketa absolutua (kg/urte) = (hasierako emaria m³/urte-tan x hasierako kontzentrazioa mg/l-tan - amaierako emaria m³/urte-tan x amaierako kontzentrazioa mg/l-tan) x 10⁻³.

III. eranskina
Aurkeztutako proiektuak bete beharreko helburuen kuantifikazioa- Airea

Eranskin honetan zehaztu beharko da aplikazio-eremutzat Airea duen aurreikusitako inbertsioan ebaluatu beharreko kutsatzaileen zerrenda.

	1	2	3	4	5	6	7	8
Kutsatzailea	Hasierako emaria (Nm ³ /h)	Amaierako emaria (Nm ³ /h)	Hasierako kontzentrazioa	Amaierako kontzentrazioa	Isuri-mugak (*)	Unitateak	Funtzionamendu-denbora/urte	Organoa(**)

(*) Adierazi legeak ezarritako isuri-mugak, edo jarduera-lizentzia, ingurumen-baimen integratua eta abar zuzentzeko neurrietan ezarritakoak.

(**) Adierazi zein organok ezartzen duen isuri-muga.

Isuri barreiatuen kasuan, murrizketa lehengaien kontsumoari edo azken produktuaren kantitateari dagokienez kalkulatu da. Horiek kalkulatu ezin badira, gehitu justifikazio-dokumentu edo -atal bat, ingurumen-hobekuntza zenbatetsia eta aukera hori hautatzeko justifikazioa azalduko dituen.

Bete beharreko helburuak berotegi-efektuko gasen (CO₂ edo beste batzuk), partikulen, NO_x, SO₂ edo KOLen isuriak murrizteari buruzkoak badira, proiektuak EAEko ingurumen-helburu estrategikoei egiten dien ekarpena hartu beharko da kontuan, VIII. eranskineko ereduaren arabera. VIII. eranskinean sartu beharreko neurketak koherentea izan behar du aurreko taulan jasotako datuekin; beraz:

Kutsatzailearen murrizketa absolutua (tona kutsatzaile/urte) = (hasierako emaria, m³/h x hasierako kontzentrazioa, mg/m³ - amaierako emaria, m³/h x amaierako kontzentrazioa, mg/m³) x urteko funtzionamendu-denbora, h/urte x 10⁻⁹.

Edo, hala badagokio, (hasierako emaria x hasierako kontzentrazioa x hasierako denbora - amaierako emaria x amaierako kontzentrazioa x amaierako denbora) unitateen arabera egokitzea, t/urte-tan murrizketa lortzeko. Kontzentrazio-unitateak pasatzeko ohiko erlazioak, baldintza normaletan:

- NO_x: ppm-tik mg/m³-tara pasatzeko, bider 2,054.
- SO_x: ppm-tik mg/m³-tara pasatzeko, bider 2,858

Bete beharreko helburua CO₂ isuriak murriztea bada, proiektuak energia-kontsumoa murrizteko egiten duen ekarpena ere kontuan hartu ahal izango da, eta adierazi beharko da Energia-kontsumoren murrizketa (ptb/urte) ingurumen-adierazle estrategikoan egingo den murrizketaren zenbatespena. Energia-unitateen artean pasatzeko ohiko erlazioak:

- 1 ptb = 41,84 10⁹ J.
- Energia elektrikoan, 1MWh = 0,086 ptb.
- 1 ptb gutxi gorabehera 10.000 m³ gas naturaleko errektuzaren baliokidea da.

IV. eranskina
Aurkeztutako proiektuak bete beharreko helburuen kuantifikazioa- Hondakinak

Eranskin hau bete egin beharko da aurreikusitako inbertsioak Hondakin arlokoak badira.
 Hasierako egoera:

Kodea (*)	Hondakinaren izena	Hondakin arriskutsua bada, arriskugarritasun-ezaugarria (toxikoa, sukoia, korrosiboa...)	Hasieran sortutako kantitatea / birziklatua (tona)	Aurreko azken helmuga (zabortegia, birziklatzea, balorizatzea, berrerabiltzea)

Proiektua gauzatu ondorengorako aurreikusitako egoera:

Kodea (*)	Hondakinaren izena	Hondakin arriskutsua izaten jarraitzen badu, arriskugarritasun-ezaugarria.	Amaieran sortutako kantitatea / birziklatua (tona)	Proiektua gauzatu ondorengorako aurreikusitako azken helmuga (zabortegia, birziklatzea, balorizatzea, berrerabiltzea)

(*) Kodea: indarrean dagoen Hondakin Europako Zerrendan (HEZ) agertzen dena, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratutakoan.

Bete beharreko helburuak hondakin sorrera murrizteari edo birziklatutako kopuruak handitzeari buruzkoak badira, proiektuak EAEko ingurumen-helburu estrategikoei egiten dien ekarpena hartu beharko da kontuan, VIII. eranskineko ereduaren arabera. VIII. eranskinean sartu beharreko neurketak koherentea izan behar du aurreko taulan jasotako datuekin, eta kontuan hartu behar ditu hondakin arriskutsuen, hondakin ez-arriskutsuen eta eraikuntza- eta eraipen-hondakin (EEH) sorrera murrizteko edo birziklatzea handitzeko aldaerak:

- Hondakin arriskutsuen sorrera murriztea (tona/urte).
- Hondakin ez-arriskutsuen sorrera murriztea (tona/urte).
- Birziklatutako hondakin arriskutsuak gehitzea (tona/urte).
- Birziklatutako hondakin ez-arriskutsuak gehitzea (tona/urte).
- Birziklatutako EEHak gehitzea (tona/urte).

Berrerabiltzeko edo birziklatzeko aukerak, gainera, materialen kontsumoa murriztearekin lotu daitezke. Kasu horretan, VIII. eranskinean materialen kontsumoa murrizteko zenbatespena gehitu ahal izango da.

V. eranskina
Aurkeztutako proiektuak bete beharreko helburuen kuantifikazioa- Zarata

Eranskin honetan, zarataren aplikazio-eremua duten inbertsioetan ebaluatu behar diren faktoreen zerrenda erantsi da.

Zarata isurtzen duen fokua zenbat ordutan dagoen aktibo eguneko.

	Egunez (08:00etatik 22:00etara)	Gauetz (22:00etatik 08:00etara)
Inbertsioa egin aurretik		
Inbertsioa egin ondoren		

Zarataren intentsitatea arintzea dezibeleetan (dBA). Industriaren jabetzaren/lurzatiaren kanpoko mugan neurtuta.

	Egunez (08:00etatik 22:00etara)	Gauetz (22:00etatik 08:00etara)
Inbertsioa egin aurretik		
Inbertsioa egin ondoren		

Bete beharreko helburuak kanpora isuritako zarata-mailak murrizteari buruzkoak badira, proiektuak EAEko ingurumen-helburu estrategikoei egiten dien ekarpena hartu beharko da kontuan, VIII. eranskineko ereduaren arabera, eta adierazi beharko da Kanpora isuritako zarata-mailen murrizketa absolutua (dBA) ingurumen-adierazle estrategikoan egingo den murrizketaren zenbatespena:

VI. eranskina
Aurkeztutako proiektuak bete beharreko helburuen kuantifikazioa- Lurzoru kutsatuak

Eranskin honetan, lurzoru kutsatuen aplikazio-eremua duten inbertsioetan ebaluatu behar diren faktoreen zerrenda erantsi da.

Kutsatutako lurren saneamenduarekin lotutako laguntzak eman ahal izateko, ezinbestekoa izango da kutsaduraren erantzulea nor den identifikatzea ezinezkoa izatea edo birgaitze-lanak finantzatzeko legezko arduraduntzat jotzea ezinezkoa izatea (urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikulua).

Aurkezten den deskribapenak gutxienez eduki hau izan beharko du:

- Ikertu beharreko lurzatiaren erreferentzia, «EAEn kutsa dezaketen jarduerak dituzten kokalekuen inbentarioaren» arabera (Geoiker Kodea).
- Lotura juridikoa ikerketaren/berreskuratzearen xede den kokalekuarekin.
- Ikerketa/berreskuratzea egingo duen entitate egiaztatua.
- Ikertu/berreskuratu beharreko kokalekuak eragindako finkari edo finkei dagokien Jabetza Erregistroaren informazio-ohar sinplea.
- Ikerketaren/berreskuratzearen helburuen deskribapena.
- Halakorik izanez gero, aholkularitzaren eskaintza erantsiko da (entitate egiaztatua).
- Kutsatutako orube bat berreskuratzeko proiektu baterako eskaera bada, «Lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketa eta/edo ikerketa xehatua» azterketaren txosten xehatua erantsiko da, horren arrazoia adierazita.
- Kokapenaren plano zehatzak

Dirulaguntzaren xede den proiektu-mota

Berreskuratzea		Ikerketa	
Lurzorua	Zaborteia	Lurzorua	Zaborteia

Dirulaguntzaren xede den lur-eremuaren ezaugarriak

Laguntza-eskaeraren xede den kokalekuaren izena:			
Geoiker kodea:			
Azalera:		Eskuratze-data:	

Lur-eremuaren datu urbanistikoak

Lur-eremuaren egungo erabilera:	
Aurreikusitako erabilera: (Hautatu aukeretako bat eta gehitu deskribapen labur bat)	<p>Bizitegia</p> <p>Produktiboa (zehaztu nekazaritzako edo abeltzaintzako jarduerak badira)</p> <p>Hirugarren sektorea</p> <p>Komunitatearen ekipamendua</p> <p>Espazio librea</p> <p>Komunikazioak</p> <p>Azpiegiturak</p> <p>Deskribapena:</p>
Erabilera berrirako aurreikusitako epea: (Hala badagokio)	

Lurzoruaren balizko kutsadura baten ondoriozko ingurumen-arazoek deskribapen orokorra

Lurzorua kutsatzea eragin duten jarduerak

Giza osasunean izan dezakeen eraginari buruzko datuak

Hurbilen dagoen hirigunearekiko distantzia:
Dirulaguntzaren xede den kokalekuaren erabilera mugakideak:
Etxebizitzetara edo bestelako erabilera sentikorretara dagoen distantzia:

Lurzoruaren kutsadura-zantzuak

Aldaketak lurzoruaren ezaugarri organoleptikoetan:
Hondakinen arrastoak:
Ingurunearen aldaketa:
Ikerketa-datuak edo aurretizko datu analitikoak egotea:
Beste batzuk:

Gainazaleko eta lurpeko urei eragindakoa

Hurbilen dagoen ibilgurako distantzia:
Ibilguaren kalitatea eta erabilera (hala badagokio):
Eremuaren kalteberatasuna lurpeko uren babesari dagokionez:
Inguruetan ur-harguneak egotea eta horien erabilera (hala badagokio):
Beste batzuk:

Kokalekuko lurzoruaren kalitateari buruzko azterketak

(Zenbakitu eta erantsi, halakorik badago, lurzoruaren kalitateari buruzko aurreiazko azterketak eta/edo lurzoruaren kalitatearen adierazpena edo prozedurako beste jakinarazpen batzuk, hala badagokio)

Alderdi teknikoak (lurzoru kutsatuak)

(Hala badagokio, adierazi kudeatu beharreko lurzoruaren aurreikusitako toxikologia-maila eta bolumena, bai eta berreskuratzeko aurreikusitako teknologia-mota ere)

Alderdi teknikoak (zabortegiak)

(Hala badagokio, adierazi berreskuratzea egiteko erabili beharreko teknologia)

VII. eranskina
Aurkeztutako proiektuak bete beharreko helburuen kuantifikazioa- Usainak

Eranskin honetan, usainen aplikazio-eremua duten inbertsioetan ebaluatu behar diren faktoreen zerrenda erantsi da.

Usain-isurien kuantifikazioa.

	OU _E
Inbertsioa (erreala edo zenbatetsia) egin aurretik	
Inbertsioa egin ondoren	

VIII. eranskina

Proiektuak EAEko ingurumen-helburu estrategikoei egiten dien ekarpena.

EAEko ingurumen-helburu estrategikotzat jotzen dira Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian, indarrean dagoen EAEko Ingurumeneko Esparru Programan eta hainbat ingurumen-plan estrategiko sektorialetan jasotakoak: Klima-aldaketaren aurkako Euskal Plana, Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko Plana, Lurzoru Kutsatuen Plana, etab. Dokumentu estrategiko horiek guztiak Estrategien eta Planen arloan daude eskuragarri, hemen: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ingurumena/>.

Eranskin honetan bilduko dira eskatutako dirulaguntzaren xede den proiektuak helburu horiek lortzen nola laguntzen duen ebaluatzeko beharrezkoak diren datuak eta informazioak.

Proiektuak helburu estrategiko kuantitatiboak lortzeko egiten duen ekarpena.

Zerrenda honetan agertzen direnen artean, bete dirulaguntzaren xede den proiektuari buruzko adierazlearen edo adierazle-multzorearen balioa (bete dagozkion adierazleak bakarrik, proiektuaren izaeraren eta tipologiaren arabera):

Ingurumen-adierazle estrategikoa	Unitatea	Hobetze-aurreikuspenaren datua
Berotegi-efektuko gasen isurien murrizketa absolutua	t CO ₂ bal/urte	
Partikulen isurien murrizketa absolutua	t partikula/urte	
NO _x isurien murrizketa absolutua	t NO _x /urte	
SO ₂ isurien murrizketa absolutua	t SO ₂ /urte	
Konposatu organiko lurrunkorren isurien murrizketa absolutua	t KOL/urte	
Kanpora isuritako zarata-mailen murrizketa absolutua	dB(A)	
Ur-kontsumoa murriztea	m ³ /urte	
Solido esekien isurien murrizketa absolutua	t/urte	
Energia-kontsumoa murriztea	ptb/urte	
Material-kontsumoa murriztea	t/urte	
Hondakin arriskutsuen sorrera murriztea	t/urte	
Hondakin industrial ez-arriskutsuen sorrera murriztea	t/urte	
Birziklatutako hondakin arriskutsuak gehitzea	t/urte	
Birziklatutako hondakin industrial ez-arriskutsuak gehitzea	t/urte	
Birziklatutako EEHak gehitzea	t/urte	
Ikertutako potentzialki kutsatutako lurzoruen azalera	m ²	
Berreskuratutako lurzoru kutsatuen azalera	m ²	
Artifizializatutako azalera murriztea	ha	

Beste adierazle kuantitatibo batzuk (adierazi)

Proiektuak beste ingurumen-helburu estrategiko batzuk lortzeko egiten duen ekarpena

Adierazi helburu(ak) eta zer dokumentu estrategikori dago(z)kion, eta gehitu justifikazio arrazoitua azalduz zergatik laguntzen duen proiektuak hori(ek) lortzen.

IX. eranskina

Proiektuaren izaera ekoberritzailea eta transferigarritasun-maila

Proiektuaren transferigarritasun-maila

Adierazi proiektuaren transferigarritasun-maila EAEko enpresetara transferitua izateko, eskala honen arabera:

	0-10 enpresari transferi dakieke/aplika dakieke
	10-50 enpresari transferi dakieke/aplika dakieke
	50-100 enpresari transferi dakieke/aplika dakieke
	100 enpresa baino gehiagori transferi dakieke/aplika dakieke

Transferigarritasun-mailaren justifikazioa

Gehitu proiektuaren izaera transferigarriaren justifikazioa, deskribatuz zein enpresatan izango litzatekeen transferigarria, eta horri lotutako ingurumen-hobekuntza (adibidez, murriztu litekeen hondakinen guztizko kopurua kuantifikatuz).

Teknologia

	Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartutako teknologia. Informazio gehiago hemen: https://www.euskadi.eus/informazioa/teknologia-garbien-euskal-zerrenda/web01-a2ingkut/eu/
	Bestelako teknologia bat

Ekoberrikuntza-mota

Adierazi berrikuntza-mota.

	Produktuaren edo ekipamenduaren berrikuntza (teknologikoki desberdina edo hobetua den produktu edo ekipamendu bat erabiltzea)
	Prozesuaren berrikuntza (produktu edo zerbitzu baten ekoizpen-teknologian aldaketa garrantzitsua sartzea)

Berrikuntzaren originaltasun-maila

Adierazi berrikuntzaren originaltasun-maila, eskala honen arabera:

	Erradikala (teknologikoki berria eta originala den eta merkatuan ezagutzen ez den prozesu edo produktu/ekipamendu baten erabilera)
	Mailakatua (lehendik dagoen prozesu edo produktu batean hobekuntzak sartzea)

Teknika eskuragarri onena

Proiektuaren bidez egindako hobekuntza «Teknika Eskuragarri Onena (TEO)» da, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauaren ondorioetarako.

Bai

Ez

Teknika Eskuragarri Onenei buruzko informazioa eskuratzeko, kontsultatu Kutsaduraren Prebentzioa, ikuskapena eta ingurumen-kontrola arloa, hemen: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ingurumena/>

Proiektuaren izaera berritzailearen justifikazioa

Gehitu proiektuaren izaerari eta irismen berritzaileari buruzko justifikazioa.